

UDALBURUA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2016ko
MAIATZAREN 19an EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hemeretziaren, hemeretziak direnean, Udaltzara Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua, eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Nik, Naiara Lazpita Marcos andreak, idazkari-lanak egin ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Susana Martín

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria eman die osoko bilkurako guztiei. Jakinarazi du Susana andrea arrazoi pertsonalak direla-eta ez dela bertaratu, eta, besterik aipatu gabe, eguneko aztergaien zerrendako gaiak eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko apirilaren 21ean eginiko ohiko bilkuraren akta.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin, eta korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Judizioz kanpo kredituak aitortzeko 2/16 zenbakiko espedientearen irizpena.

Ez da gaiari buruzko ezer esan, eta bozketa egin da. Udaltzara Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta, hori dela bide,

IKUSI DA.- Judizioz kanpo kredituak aitortzeko 2/16 espedientea.

IKUSI DA.- Idazkari eta kontu-hartzaileak 2016ko maiatzaren 6an eginiko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2016ko maiatzaren 10ean emandako aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 176. artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen 500/1990 Errege Dekretuaren 16. artikulua.

Udaltzara Osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea judizioz kanpo kredituak aitortzen dituen 2/2016 espedientea, jarraian zerrendatzen diren gastuen arabera:

•645,16 euroko gastua: Aiarako Udalak Alday Fundazioari ematen dion diru-laguntzaren zati bati dagokiona, Arespalditzako CRADa mantentzeko eta kudeatzeko (oraindik ordaindu gabe dago 2015ekoa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek emandako txostenean akats bat egon zelako).

Bigarrena.- Aipatutako kreditu-aitorpena 2016 ekitaldiko aurrekontuari egoztea, 231.227.005 zenbakiko aurrekontu-aplikazioari, hain zuzen.

3.- Onestea, bidezkoa bada, maiatzak 17 Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira egindako erakunde-adierazpena.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute. Horrenbestez, maiatzak 17 Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Egunaren inguruko erakunde-adierazpena onetsi da. Honako hau dio, hitzez hitz:

“Aiarako Udalak maiatzak 17 Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Egunaren harira egindako erakunde-adierazpena”.

1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeko Batzar Nagusiak buruko gaixotasunen zerrendatik kendu zuen homosexualitatea. Ordutik, egun horretan ospatzen da Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Eguna. Egun horretan, sexu-orientazio edo genero-identitate desberdinak oraindik ere bereizkeriarako arrazoi direla gogorarazten da.

Herri-administrazio gisa, jendaurrean adierazi nahi dugu eskubideberdintasunarekiko errespetua dugula eta bereizkeriaren aurka gaudela. Era berean, oinarri gisa aniztasuna errespetatuz hezi nahi dugu, gure komunitatean dauden aurreiritziak desmitifikatuz eta hautsiz.

Aiara, berdintasunezkoa eta sexu-aniztasunarekiko errespetutsua den udalerria”.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren arteko lankidetzahitzarmena, Aiaraldean euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa (2016 ekitaldia).

Iraida andreak (AB) azaldu du idazkariak batzordean esan zuela argi adierazi behar dela jarduera, eta berak dio oraindik ez dutela zehaztua ikusten.

Idazkariak erantzun du hitzarmenean islatzen dela Kontseiluaren funtzionamendua lagunduko dela diruz; ez da jarduera zehatz bat, baina zehatz-mehatz jasotzen da funtsak zertarako erabiliko diren, eta hori justifikatu egin beharko da gero. Beste hitzarmen batzuetan modu berean egin dute hori, hala nola Aiaraldekoan.

Iraida andreak esan du gai hau aspalditik lantzen ari dela, eta beraiei dena erabakita eta konponduta iritsi zaiela. Informazioa falta zaie. Aiara, Amurrio eta Artziniegako sinadurekin argazki ofiziala egin da, hitzarmena Udalbatza Osoak onetsi aurretik. Halaber, esan du abstenitu egingo direla, informazio-faltagatik eta alde zuzenetik jakin nahi zutelako.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du beraiek soilik asmo-adierazpen bat sinatu zuela, hitzarmena oraindik onetsi gabe zegoelako. Onetsi ondoren sinatuko dute.

Besterik esan ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da, eta hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: 8 (4 EAJ-PNV eta 4 BILDU)
Abstentzioak: 2 AB

Eta, hori dela bide,

IKUSI DA.- Udalak udalerrian eta eskualdean euskararen erabileraren normalizazioa sustatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak helburutzat duela euskararen erabileraren normalizazioaren aldeko ekintzak antolatzea beste hainbat eragileren laguntzarekin.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren arteko lankidetzahitzarmena (2016 ekitaldia), Aiaraldean euskararen erabilera normalizatzeko Kontseiluaren ekintzak eta funtzionamendua finantzatzeari buruzkoa.

IKUSI DA.- Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2016ko maiatzaren 10ean emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen honek Aiarako Udalak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari zuzenean emandako diru-laguntza bat arautzen du. Halaber, 2016. urtera arte luzatu den udal-aurrekontuan aurrekontu-aplikazio bat dago, kreditu-transferentziak aldatzeko espediente baten bitartez sortutakoa (2016ko maiatzaren 16ko 167/16 Alkatetza Dekretuaren bitartez onetsitakoa); nahikoa kreditu dago hitzarmen hau sinatzeak sortuko duen gastua onartzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Aurrekontua luzatzeko egoeran egonik, oraindik ez da onetsi 2016ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa. Hortaz, 2015ean onetsitako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren (2016. urtera arte luzatutakoa) III. Eranskina aldatuko da, Euskararen Arloko diruz laguntzeko jardueri dagokiona, diru-laguntza hau sartzeko.

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Aldatzea 2015eko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren III. Eranskina (2016. urtera arte luzatutakoa), Euskara Arloko diruz laguntzeko jarduerara. Honako hau gehitu da: “Halaber, diru-laguntza zuzen bat ematea proposatu da, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkartearekin lankidetzahitzarmen sinatuz, udalerrian eta eskualdean euskararen erabilera normalizatzeko jarduerak sustatzeko. Bestetik, diru-laguntzen laburpenaren taulan 7 zenbakiko fitxa gehitu da: “Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren diru-laguntza” (396,32 €).

Bigarrena.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren arteko lankidetzahitzarmena, Aiaraldean euskararen erabileraren normalizazioa sustatzeari buruzkoa (2016 ekitaldia).

Hirugarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

Laugarrena.- Hitzarmena sinatu ondoren, aipatutako Kontseiluari jakinaraztea eta hitzarmenaren bi ale helaraztea, sina ditzan eta sinatu ondoren Udalari bat itzul diezaion.

5.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

- **Erref.- 132/16.- J.M.M.-** Biztanleen udal-errolan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 133/16.- Tramame, S.A.-** Administrazioarekiko 122/13 Auzi Helegiteari dagozkion kostuak ordaintzeko eskatzea.
- **Erref.- 134/16.- DR.B.M.-** Baja emateko espedientea, biztanleen udal-errollaren epea iraungi baita.
- **Erref.- 135/16.- Luiaondoko Padura kaleko 5, 9, 13, 17 eta 21 zenbakietako etxejabeen elkarteak.-** Eraikin horietako aurrealdeak konpontzeko, kontserbatzeko eta birgaitzeko lanak egiteko eskatzea.
- **Erref.- 136/16.- M.B.-** Biztanleen udal-errolan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 137/16.- Urbegi Servicios Mediambientales, S.L.U.-** Eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratazio-espedientea eskuratzeko baimena ematea.
- **Erref.- 138/16.- J.J.A.M.-** Fidantza eskatzea, Salmantongo eraikin bateko estalkia zaharberritzeko eraikuntza- eta eraiste-lanetako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 139/16.-P.I.I.-** 2016ko OHZren kontribuzio-errolen aurka aurkeztutako alegazioei erantzutea.
- **Erref.-140/16.- M.I.F.-** 2016ko OHZren kontribuzio-errolen aurka aurkeztutako alegazioei erantzutea.
- **Erref.- 141/16.-** Zerbitzu anitzetarako langileak aldi baterako kontratatzea.
- **Erref.- 142/14.-** AFari diru-laguntza eskatzea, 2016an kultur jarduerak egiteko.
- **Erref.- 143/16.- L.U.P.-** Luiaondoko eraikin bateko estaldurak desmuntatu eta kentzeko udal-baimena ematea.
- **Erref.- 144/16.- M.A.C.A-** Agiri gehiago eskatzea, Retes de Llantenen familia bakarreko etxebizitza eraikitzeke obrarako lizentziaren espedientearen inguruan.
- **Erref.- 145/16.- Fundación Benéfica Alday.-** Dokumentazio gehiago eskatzea, Arespalditzako 8-EUko UJPren onespeneren espedienteari buruz.
- **Erref.- 146/16.- Fundación Benéfica Alday.-** Dokumentazio gehiago eskatzea, Arespalditzako 8-EUko Urbanizazio Hitzarmena onesteko espedienteari buruz.
- **Erref.- 147/16.- Fundación Benéfica Alday.-** Dokumentazio gehiago eskatzea, Arespalditzako 8-EUko Birpartzelazio Proiektua onesteko espedienteari buruz.
- **Erref.- 148/16.- N.L.E.-** Agiri gehiago eskatzea, Izorian etxebizitza bat eraikitzeke obrarako lizentziaren espedienteari buruz.
- **Erref.- 149/16.-** Alkatearen 2/2016 kreditu gehigarriaren espedientea.
- **Erref.- 150/16.- Construcciones Ugarteko, S.L.-** Proiektua eta dokumentuak aurkezteko epea luzatzeko eskaera ezeztatzea.
- **Erref.- 151/16.-** Onestea F/2016/4 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.- 152/16.- P.O.O.-** Dokumentu gehiago eskatzea, Izorian baserri bat berritzeko obraren okupazio-lizentziaren tramitazioaren inguruan.
- **Erref.- 153/16.-** Zerbitzu anitzetarako langileak aldi baterako kontratatzea.
- **Erref.- 154/16.-** Etxaurren Ikastolako obren proiektua idatzi eta zuzentzeko zerbitzua esleitzea.
- **Erref.- 155/16.- J.J.A.M.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Salmantongo eraikuntza baten estalkia zaharberritzeko.
- **Erref.- 156.- A.I.A.-** Administrazio-espedientea abiaraztea, eragotzitako hiri-antolamendua berrezartzei buruzkoa.

- **Erref.- 157.- Arcos de Quejana, S.L.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Kexanako 6. poligonoko 193. lursailean bide bat eta apaingarrizko urmael bat eraikitzeko.
- **Erref.- 158/16.-** Familiei Euskal Autonomia Erkidegoko kiroldegietako bazkideen kuotak ordaintzeko laguntzak emateko deialdia.
- **Erref.- 159/16.-** Luiaondoko “Osakidetzaren Osasun Zentroa” obrarako espediente eta alde zurreko jakinarazpena amaitzea.
- **Erref.- 160/16.-** Tubako Plan Bereziaren hasierako onespina ebatzea, eta plana eta ESAEa jendaurrean ikusgai jartzea.
- **Erref.- 161/16.-** Onestea Ur-horniduraren eta Estolderiaren Zerga Erroldak (2016ko 1. hiruhilekoa).
- **Erref.- 162/16.- Abere Zerbitzu Teknikoak, Koop. S.-** Ganadu Piriniotarraren Arabako II. Lehiaketa antolatze kontratu txikia aldatzea.
- **Erref.- 163/16.- G.A.A.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateko lizentzia ematea.
- **Erref.- 164/16.- Viesgo Energía, SL.-** 2016ko lehenengo hiruhilekoan lurzorua okupatzeagatik tasa likidatzea.

* Iraida andreak (AB), 133/186 Dekretuari dagokionez, galdetu du ea Tramame eta Remai enpresei zorretan dituzten isun eta ordainketa guztiak kobratzen ari zaizkien.

Idazkariak baietz esan du. Borondatezko epean ordaintzen ez dutena Arabako Foru Aldundiaren Agentzia Exekutibora bidaltzen da, eta haiek betearazte-bidetik kobratzen dituzte zorrak.

* Iraida andreak (AB) 145, 146 eta 147 dekretuez galdetu du, ea zer eskatu zaien.

Idazkariak azaldu du informazio edo zuzenketa gehiago eskatu zaizkiela, udal-teknikariaren txostenen arabera.

* Josu jaunak (BILDU) 154/16 dekretuari buruz galdetu du; jakin nahi du zergatik ez zaien beste enpresa batzuei aurrekontua eskatu, horrela gardenagoa izango bailitzateke.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) dio hori, legez, alkatearen eskumenekoa da; izan ere, kontratu txiki bat denez, zuzenean esleitu daiteke. Gainera, ikastolako aparkalekuaren obra esleitu zenean erabili zen irizpide bera erabili da.

Josu jaunak erantzun dio orduan egoera berezi bat zegoela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) dio oraingo egoera ere berezia dela eta Legeak baimentzen duela. Aparkalekuaren obrarekin izandako esperientzia onaren ondoren erabaki zen; eta, proiektua Hezkuntzara bidaltzeko epea soilik hilabete batekoa zenez, premiazkoa zen esleitzea.

Josu jaunak (BILDU) azaldu du beraiek proposatu zutela horrelako erabakiak ez zirela hartuko, esleipenei gardentasun gehiago emateko; interesgarriagoa da beste teknikari batzuk esleipen horietan sarbidea edukitzea. Etika- eta gardentasun-kontua da.

Gentza jaunak esan du ez dela egokia gai etikoak baloratzea; izan ere, batzuen etika besteenarekin bat ez etortzea gerta liteke. Aurreko bilkuretan esleipen horren aurka hitz egin genuen, garestia zelako; azaldu genuen hala ez zela. Bestetik, esan du ez duela onartuko gobernu-taldearen etika eta gardentasuna zalantzan hartzea, beste kasu batzuetan modu berean jardun izan baitute.

Nerea andreak (BILDU) adierazi du ez dutela zalantzan jarri alkateak kontratu hori esleitzeko duen legezkoatasuna, baina bere taldeak uste du etikoagoa edo gardenagoa dela lizitazioa hiru profesionali eskatzea, gardenagoa delako. Aurreko legegintzaldian ere, beste talde batzuk gauza bera eskatzen duten beste gai batzuetarako. Beraien ustez, udalean lan egiten duenak hori bete behar du.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) esan du ez dela udal-teknikari bat, Kuadrillak kontratatutako enpresa bat baizik, eta ez daukatela dedikazio eskusiboa udalean. Horregatik, ez dute ulertzen zergatik ezin zaien esleitu.

Lauren jaunak (BILDU) azaldu du ez zaiela egokia iruditzen udal-teknikariei esleitzea proiektuak idazteko lana. Bestetik, gehitu du bere taldeak hausnarketa hori bilkurara ekarri duela ez zaielako etikoa iruditzen horrela jardutea; prezioak alderatzeko hobe dela beste profesional batzuei aukera ematea.

6.- Galderak eta eskaerak.

- Iraida andreak (AB) lehendakariak San Isidro azokara egin zuen bisitari buruz galdetu du. Jakin nahi du ea udalak gonbidatu zuen edo udalak lehendakariaren bisitaren berri ba ote zuen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio udalak ez zuela gonbidatu, baina bazekiela etortzekoa zela.

Iraida andreak esan du bere taldeak nahiko zukeela horren berri eduki.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du bere taldeak ere nahiko zukeela lehendakariaren bisitaren berri eduki; izan ere, Aiaran dauden arazoetan asko laguntzen ari den erakunde baten ordezkaria da (adibidez: eskola-garraioa). Bere taldearen ustez, azokara etortzea ausarkeria izan zen.

Gentza jaunak erantzun dio udalak ez diola lehendakariari esango San Isidroko azokara edo bestelako jardueretara ez etortzeko, eta dagokion protokoloari jarraituta egingo diogula harrera.

Josu jaunak (BILDU) erantzun dio protokoloa talde politiko guztiek jakin beharko luketela.

Nerea andreak (BILDU) gehitu du eskatzen duten bakarra dela talde guztiak jakinaren gainean egotea lehendakaria edo beste norbait datorrenean. Izan ere, jakin izan balute, galderaren bat egingo liokete; adibidez, garraioaren arazoari buruzkoa. Halaber, udalerrian gai horri buruzko kezka jakinaraziko zizkioten.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio egun hartan edonork izan zuela etorri eta galderak egiteko edo nahi zuena esateko aukera. Hala ere, jardunaldia nekazaritza-sektoreari begirakoa zen.

- Lauren jaunak (BILDU) galdetu du ea nola dagoen Nerbioi Garaiko Saneamendu Plana.

Gentza jaunak erantzun dio Informazio Batzordean emango dutela gai horren berri.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta berrogei minutu direnean, eta, aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, nik, idazkariak, akta hau egin eta egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hemeretzian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos